

JOLAS TXOKOAK 2018

Aurreko urteetan bezala, Guraso elkartetik zuen seme-alabei egun batzuk beste haur batzuekin batera euskaraz pasatzeko aukera eskaini nahi diegu. "Denboraren makina" aurtengo proposamena da.

Programatutako jarduerak dibertigarriak eta hezitzaileak dira: hainbat joko mota, tailerra, ur-jarduera, ipuin, abesti egingo dira, lehen hezkuntzakoak igerilekura joango dira eta haur hezkuntzakoek txangoak egingo dituzte.

DATAK asteka	NORENTZAT	NON	ORDUTEGIA	PREZIOA (1)		
(aste bat, 2 edo 3 aukera daitezke) • Ekainaren 25etik 29ra • Uztailaren 02tik 06ra • Uztailaren 09tik 13ra	HAUR Hezkuntza. 1. 2. eta 3. (3, 4 eta 5 urteko gelak)	Ikastola TXIKIA	9:30-13:30	aste bat bazkide 61 €	2 aste bazkide 122 €	3 aste bazkide 183 €
	LEHEN Hezkuntza. 1.-6.	Ikastola HANDIA	9:25-13:25	ez bazkide 96 €	ez bazkide 157 €	ez bazkide 218 €

(1) Udaleko Hezkuntza Sailak diruz laguntzen ditu oporretako jarduera hauek. Diru-laguntza horretako eabazpena azaroan izango da. Diru-laguntza aurreikusitakoarena baino handiagoa bada, horren berri emango zaie familiei eta dagokion itzulketari ekingo zaio.

GOIZEKO LUDOTEKAKO ZERBITZUA

Martxan izango da 8:15etik, sarrera malguarekin. Izen-emateen gutxienerako kopurua: 15 (*).Asteko kostua: 15 €

JANTOKIKO ZERBITZUA

Martxan izango da 13:30etik 15:00etara. Izen-emateen gutxienerako kopurua: 15 (*).Asteko kostua: 33 € haur-hezkuntzakoentzat eta 26,40 € lehen hezkuntzakoentzat. Gamarrarako txangoaren (lehen hezkuntzarako soilik) egunean haur bakoitzak beraren bazkaria eraman behar du.

(* Goizeko zaintza eta jantokiko zerbitzurako parte-hartzaileen gutxienerako kopurura iritsiko ez bagina, izen-ematearen zenbateko osoa itzuliko da, halaxe eskatuz gero.

INSKRIPZIOAK

Izen-ematea egin daiteke on-line, gure web gunearen bidez www.abendanogurasoak.com, edo paperean, izen emate orrian datuak beteta. Izena emateko, on-line bitartez edo paperean eginda, EZINBESTEKOA DA familia-baimenaren orria izenpetuta ematea.

Orri hori eta ordainketa-agiria, eta izen emate orria (paperan egiten bada), ikastola bietako atarteetan ezarriko diren udaleku-kutxetan utzi beharko dira.

Kontu zenbakia diru-sarrera egiteko
Laboral Kutxa ES43 3035 0177 79
1770015861

Jarri ezazue haurraren izena eta abizena

Izena emateko epea maiatzaren 7tik 13ra bitartean zabalik izango da.

- Epe guztiak errespetatzea. Epez kanpo emandako eskaerak ez dira onartuko.
- Eskaera kopurua baino handiagoa bada, zozketa egingo da honako hurrenkera hau errespetatuz:
 - Guraso elkarteko bazkideak.
 - Guraso elkarteko bazkideak ez direnak.
 - Ikastolakoak ez diren D ereduan matrikulatutako haurrak.
- Onartutakoen zerrendak ikastola bietako sarreretako iragarki oholetan jarriko dira, baita Facebook eta web orrian ere.
- BEHIN IZENA EMANDA, EZ DA DIRUA ITZULIKO (*)
- BILERA INFORMATIBOA

Maiatzaren 31n, ostegunean, 17:30ean, ikastola handiko jantoki zaharrean (Elkartearen Ohiko Batzar Orokorra). Zaintza zerbitzua egongo da.